

Goi

Goierritarra aldizkaria

410 zenbakia 2011ko azaroak 4



**AIKIALDIKO
HEZIKETA**

ENEKO DORRONSORO

RANTXERAK ETA
TRIKITXA UZTARTUZ



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net



KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN





Joxepa Madariaga

Zeinek jantziko dik txapela?

Ja!, denok pentsatzen duzue, Iñaxio eta Joxepa, Joxepa eta Iñaxio, txapel kontuan hasi garenean, Gpuntuaz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaz ariko garela, ezta? Ba, ez! Ez da hori gure asmoa, nahiz eta gai interesgarria, zeresana duena eta erraz egiteko modukoa izan guretzat.

Prozesu guztiek ditek beren bidea, prozesu guztiek pasa eta erre behar dituzte helburura iritsi arteko pausuak, faseak. Gatazka potolo batean ezin liteke bidezidorrik hartu eta bidea laburtu. Nahi bai, askotan nahi izango genieke helburura lehenbailehen eta zuzenean iritsi, baina ezin liteke. Ezin liteke, gutxienez bi alde dituen gatazkan, alde bakarrari eskatu pausuak emateko. Ezin liteke...

Urte luze eta gogorak bizi izan dizkiagu. Gorriak ikusten ari ginelako, defentsarako sortu zian herriak erakunde armatua. Inoren gustukoa ez, baina piper potoa eta bere

Zeinek jantziko dik bakearen txapela?,

Horixe duk daukagun buruhaustea,

beste zereginik izango ez bagenu bezala.

erregimena inposatu zizkigun Franco Caudillori aurre egiteko sortu huen herritik erakunde armatua. Francisco joan huen, baina ez zian berekin eraman erregimena. Jarraitzaile finak utzi zizkiguan...

Bakea, bakea behar genian aspaldi, bake goseak gauden euskaldunok, baina gure etorkizuna bideratzen, gure nazioa eraikitzen jardun ordez, txepelkeriatan ari gaituk elkarri pilota botatzen, bakoitzak gure meritu dominak jasotzen. Zeinek jantziko dik bakearen txapela?, zeinek jango bake-pastela? Horixe duk daukagun buruhaustea, horixe borroka, beste zereginik izango ez bagenu bezala.

Aspaldikoa den prozesuko fase honetan hasi besterik ez gaituk egin eta nola ikusten duk hik gure etorkizun hur-bila, Iñaxio?



Inazio Usarralde

Joxepa, behingoz, pozik gaudela esateko moduan gaitun! Baina, poza neurtua nabari dinat eta hala beharko din. Oraindik ere izugarri baitzegon egiteko.

Pare-parean zeukanat aste honetako 'Argia' aldizkaria eta izenburu nagusiak dioen bezala 'hitz egiteko eta konpontzeko' garaia iritsi dun. Ez zegon aitzakiarik. Lehen ere ez, eta orain gutxiago! Bistan denez, sabeleko hesteak ere bihurtu zaizkien arren, makina bati bukatu zaion kontutik bizitzeko aitzakia.

Eta orain, zer? Bertako nahiz kanpoko aditu guztien arabera, bi lan eremu sortu beharko ditun. Batean, ETA erakundeak eta estatuek -Frantziak zein Espainiak- berei dagozkien kontuak konpondu beharko dituzten: armen deuseztatzea, biktima guztien afera, presoan eta iheslarien etxeratzea... Beste lan eremuan, berriz, alderdi politikoek eta gainerako gizarte eragileek jardun beharko dituen gatazka politikoaren oinarriak heldu eta herri hau behingoz normalizazio politikoaren bidean jartzeko.

Joxepa, zorionekoak gu!

bizi dugun aro hau bizitzeko aukera

dugulako. Halaxe sentitzen dinat.

Bakearen txapela nork jantziko duen? Nik uste dinat, herri honek sufritu duenarekin, herri osoak merezi duela. Nolanahi ere, ez gaitezten engaina, benetako bakea oraindik etortzeko zagon eta.

Joxepa, zorionekoak gu! bizi dugun aro hau bizitzeko aukera dugulako. Halaxe sentitzen dinat. Gure seme-alabei etorkizun hobeaz uztako parada ezin hobeaz zeukanagu. Ea baliatzen jakiten dugun! Nik izugarrizko konfiantza zeukanat herri honen gaitasunean.

Eta gu geurera, Joxepa: herri honi hizketarako zubiak eskaintzen jarraitu beharko dinagu Euskal Eskolatik. Iritsi dun garaia txepelkeriak utzi eta etorkizunaz begietara begira hizketan hasteko. Eutsi, neska, bideak helburuak bezain ederra zirudun eta!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Arlo politiko hutsean kokatuko omen da orain gatazka,
eta errelatoa edo kontakizuna izango ei da hitz
fetitxeaz gain guztien desiren objektua.



**Idurre Eskisabel
Larrañaga**

Eta krak *

*Batekoen eta bestekoen 'garaipen' beharrak galtzaile sentiarazten nau.
Urriaren 22an lagun bati facebookeko hormatik lapurtua*

Atera zara larunbat goiz batean kalera, paseatzera. Urdin ageri da zerua eta epel dabil haizea. Ederrak daude bazterrak, lasai nabari duzu barrua. Halako batean, gurasoen betidaniko lagunarekin egin duzu topo, ia etxekoa den X-ekin. Beno, X-ekin eta haren itzal ematen duten bi morroirekin. Eta orduantxe akordatu zara duela zenbait astetik bizkartzainekin dabilela X, alderdi bateko zinegotzi delako eta horrexegatik ETArekin jomugan delako. Elkar agurtu duzue, eta kortesiazko hitz batzuk gurutzatu ere bai. Oso goibel sumatu duzu X, morroien bi itzalek itzalduta, eta besarkada emateko bulkada sentitu duzu. Baina haren begiradak ebaki du keinua, beste aldekoa zarela adierazi baituzu, bere egoeraren errudun egiten zaituela irakurri baituzu, han, hondoan. Deseroso sentitu zarete, hizketarako motz. Hotz ebaki duzue azken diosala, eta krak egin dizu zerbaitek barruan.

Baina larunbat goiza da, eta ederrak daude bazterrak. Epel dabil haizea eta urdin ageri da zerua. Kanean aurrera segitu duzu, eta lasterrera Y hurbildu zaizu, aspaldi ikusi ez arren betidaniko laguna. Aztoratuta agurtu zaitu, asaldatuta, eta esan dizu goizaldera guardia zibila sartu zaiela etxean, bortitz, eta arreba eraman dutela, gazte mugimenduan dabilelako. Eta inkomunikatuta daukatela, eta jasangaitza dela zer egongo den jasaten pentsatzea, hain direla izugarriak horrelako sarekadetan atxilotutakoen tortura lekukotzak. Besarkada emateko bulkada sentitu duzu, baina Y-ren hitzek ebaki dute keinua, mobilizatu beharraz, eta estatuari erantzun beharraz, eta gutxi batzuek dena ez emateko bakoitzak eman behar duenaz ari baita arrapaladan, eta, ulertu duzu, han, hondoan, beste aldean kokatzen zaituela eta bere egoeraren errudun egiten. Deseroso sentitu zarete, hizketarako motz. Hotz ebaki duzue azken diosala, eta krak egin dizu zerbaitek barruan.

Dena den, aurrera segitu duzu. Izan ere, urdin ageri da zerua, ederrak daude bazterrak, haizea epel dabil, eta larunbat goiza da. Egin duzu pasiera, egin dituzu erosketak, eta hartu duzu bermuta adiskideekin. Egin dituzu iluntzerako planak; areago baita hurrengo asteburuan eskiatzera joatekoak ere. Normal, ondo.

Baina bazkal ondorengo lo kuluxkatxo ahaleginean zerbaitek enbarazu egiten dizu, eta ez da larunbat arratsaldeko telefilm melangaren soinu ohikotan narkotikoa. Krak eta krak dabil

burua; krak eta krak dabil urdaila. Hortxe daude, beste bi krak iltzatuta.

Krak horiei hitz egiten utziz gero esango zenieke X eta Yri ez zaudela 'beste aldean', haien artean -ez tartean- baizik. Esango zenioke X-i aspaldi dela ETArekin jardun armatuarekin ez zaudela ados, baina horrek ez zaituela ukaziora eramaten: hau da, auzi politikoa ukatzera, estatuen bortizkeriaren eta eskubide kolektibo oinarritzkoenak baliogabetzen dituen ustezko demokraziaren aurrean itsu izatera, 'beste aldeko' sufrimendua bakartu eta ezabatzea, borroka armatuaren eta erakundearen testuinguru eta herri historia bati muzin egitera, eta Euskal Herri aske bati bizkar ematera. Esango zenioke, halaber, bera ere izan zela noizbait ETArekin zale, areago, etakide, eta nork duen (zein jainkok?) eta zergatik ongiaren eta gaizkiaren arteko muga absolutua ezartzeko eskumena.

Y-ri, berriz, esango zenioke Euskal Herri aske eta berdinala duzula zeuk ere helburu, baina horrek ez zaituela erabateko onarpena eramaten: hau da, ETArekin jarduna Mariren agintepeko fenomeno meteorologikoa balitz bezala ulertzera (zinegotzi goxoki saltzaileen hilketak 'gatazkaren ondorio' hustzat hartuz, 'egin badute zerbaitegatik egingo zuten' baieztatuz, ETAko buruzagiei katolikoek aita santuari aitortzen diotenaren pareko infalibilitatea aitortuz). Hau da, intsumisioa zarela eta logika militarra eta abangoardiek ezinegona sortzen dizutela -are eta gehiago haien aukeraketa eta kontrolean inolako esku-menik ez duzunean-, eta, gainera, uste duzula, gure jendarteak azken 30 urteetan aurrera egin duen ia urrats bakarra horixe dela: hurkoa eta haren bizitza beste ezeren gainetik jartzea (hori, askotan, diskurtsoan, oso-oso-oso maila azalekoan, gertatzen dela ederki asko dakizun arren).

Urriaren 20an ETAk jardun armatua behin betiko utziko zuela iragarri eta aurrera begirakoak 'beste aldearekin' lotu antzera egon daitezkeela susmatuta, lasaitu ederra hartu dute barne krakak. Arlo politiko hutsean kokatuko omen da orain gatazka, eta errelatoa edo kontakizuna izango ei da hitz fetitxeaz gain guztien desiren objektua. Beraz, kontakizunaren joko horretan hau da nire ipuina.

**Norberak erabaki dezala izenburuko juntagailua letra larritz idatzi behar ote den.*



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea


BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29 Lakuntza (Nafarroa) Tel.: 948 57 60 68

Sukaldeak

Zeramikak

Erreformak

Bainugelak

Beheko suak



www.lopetegi.es

Baratze ekologikoa (II)



5. Ureztapena. Erabiliko den ureztapen exudante motako ureztapena izango da. Metodo honekin, konpostarekin eta ereintza txikiarekin hezetasun kantitate egokia izango da parade-tan. Ureztapen sistema honekin eta konpostarekin laster azalduko dira bertako zizareak. Hauek lurraren estruktura hobetzen dute, bertan lurra aireztatzeko galeriak eginez. Parada bustia izatea, ez zapaltzea, konposta gainean izatea, landare ezberdinak izatea, lurra ez aitzurtzeak,... lurra oso emankorra izatea eka-rriko du eta bertan haziko diren landareak oso gogor-rrak izango dira, izurri eta gaixotasunekiko erresisten-teak izanez.

6. Lau urteko errotazioa. Zikloak lau urte izango ditu.

Familia botaniko berdineko landareak leku berean landatzen baditugu, gaixotasunekiko erresistentzia jaisten joaten da. Hau konpontze-ko errotazio on bat egitea komeni da. Familia ezberdi-neko landareak behar ezberdinak dituzte eta erro-tazioa eginez asetuko ditu-gu.

Kasu honetan errotazioak lau urtekoak dira. Beti lau-ko multiploak izan behar ditu paradak. Kontuan izan behar dugu negutegi txikiak ere jarri ditzakegula, tutoreak, manta termikoak... eta guk geuk esperimintatu gure baratze-ko paradekin.

Ondoko errotazio taula jarraitu behar da.

Informazio gehiagorako:
www.gasparcaballerodesego-via.net/es/

Eman beharreko errotazioa eta familiak

Solanazeoak

Tomatea
Piperra
Berenjena

Unbeliferak

Azenarioa
Apioa
Apio-arbia

Liliazeoak

Tipulak
Porruak
Baratzuria

Lekadunak

Babarrunak
Lekak
Ilarrak
Babak

Kruziferoak

Aza
Azalorea

Konposatuak

Letxuga
Eskarola

Txenopodiazeoak

Zerba
Erremolatxa
Espinaka

Kukurbitazeoak

Kuiatxoa
Pepinoa

Kontuan izan behar dugu negutegi txikiak

ere jarri ditzakegula,

tutoreak, manta termikoak...

eta guk geuk esperimintatu

gure baratze-ko paradekin.



Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es



- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa
BEASAIN

tel.: 943 16 40 40
faxes: 943 16 47 47
mug.: 639 631 640

www.mueblesibaiondo.com


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kaku
Tel 943 711 804
Arrasate

10



XXVI. MUSIKA BARROKOAREN EGUNAK

ELIZA NAGUSIA

20:00 h

ORDIZIA

2011

Barroko Aire

Azaroak 4, ostirala
Spanish Brass
Luur Metalls

Azaroak 12, larunbata
Arimaz ganbara orkestra
Santa Cecilia abesbatza
Kepa Martinez de Albeniz, zuzendaria

Azaroak 19, larunbata
Kanthoria taldea

Azaroak 26, larunbata
Easo Eskolania
Gorka Miranda, zuzendaria



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ordiziako Udala



gizarte
kutxa

Nerea Manzisidor eta Alazne Elortza:

“Helburu hezitzaileak dituen aisialdia eskaintzen du Aisihezi elkarteak”

2010eko ekainean sortu zuten Nerea Manzisidor eta Alazne Elortza beasaindarrek Aisihezi aisialdi elkarteak. 7 lagun ari dira lanean. Momentu honetan, Beasaingo Txelotxe eta Berritsu ludotekak, Eizu Gaztelekua eta Olaberriko Kometa ludoteka kudeatzen dituzte, baina Goierrira eta esparru berrietara ere zabaltzea nahi dute beraien eskaintza. Adibidez, “Beasaingo abenduko liburu eta disko azokan zerbait egin nahi zen eta zer ekarri pentsatzen aritu ziren. Ez dago kanpotik ezer ere ekarri beharrik, guk geuk egin dezakegu. Gu prest gaude. Askotan ez da diru askorik behar gauzak egiteko, irudimenarekin gauza politak egin daitezke”.

Zein helbururekin sortu da Aisihezi elkarteak?

Eremu ezberdinetan helburu hezitzaileak dituen aisialdia eskaintzea da gure helburua. Proiektu hezitzaile ezberdinak garatzeko sortu da Aisihezi. Lan ildo eta helburu ezberdinak ditugu. Haurren aisiarekin lotutako edozein zerbitzu ematen dugula. Goierrira zabaltzea nahi dugu zerbitzu eskaintza. Festetako haurrentzako ekintzaren bat antolatu nahi bada, etor daitezela guregana.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Hiru zutabetan banatzen da gure zerbitzua. Batetik, zerbitzuen kudeaketa. Espazioetako diseinu proiektuak, proiektu zehatzak... Bestetik, jai dinamizazioa eskaintzen dugu, tailerrak, eskulanak, jolasak, jolas kooperatiboen inguruko tailerrak. Jolas dinamizazioaren barruan jolas erraldoi batzuk egin ditugu. Egurrezko jolasak dira eta herri ezberdinei eskaintzea da gure asmoa. Loinatz auzoko jaietan estreñatu genituen, eta arrakasta izan zuten. Oso ekargarriak eta deigarriak dira.

Hirugarren atal bat ere hasi gara jorratzen: zaintza zerbitzua. Ikastetxeei, enpresei edo elkarte ezberdinei eskaini nahi diegu: hitzaldi bat, bilera bat, jardunaldi bat... edo antolatzen dutela, gu arduratuko ginateke umeak zaintzeaz.

Aisialdi hezitzailea diozuenean, hezitzaile horrekin zer esan nahi duzue?

Lau zutabetan banatzen ditugu aisiaren helburuak. Aisialdian ongi pasatzea da helburu, espazio ludiko bat da eta. Batetik, sormena, irudimena, komunikatzeko gaitasuna lantzea eta nola ez, hizkuntza helburuak lantzea da beste helburu multzoa. Errealitate ezberdinak daude eta gure lana motibazioa bideratzen da, gero erabiltzen eragina izan dezan. Motibazioa indartu nahi dugu. Helburu sozialak ere baditugu, kultura arte-kotasuna, edo ezinduen integrazioa taldean.

Beasaingo bi ludotekatan eta Gaztelekuan eta Olaberriko ludotekan ari zarete dagoeneko lanean. Goierrri osora zabaltzea nahi duzue zuen eskaintza.

Gipuzkoa mailan ez dakit enpresa handi dauden, ia dena hartu nahi dutenak. Falta dena da, herriko elkarte txikien presentzia. Ordizia Hitzaro euskara elkartearen lan ildo bat da, baina zuzenean aisiari zuzendutako elkarte txikiak badaude, baina ez dira iristen herriko kudeaketa bat eramatera.

Guri garrantzitsua iruditzen zaigu, bertakoak izatea kudeaketa eramango dutenak, errealitatea ezagutzen dugulako. Donostiako enpresa handi bat kontratzen baduzu, arduraduna hilabetean behin etorriko da, hemen langileak izango ditu... Guk aisialdi hezitzaile horren bidean, garrantzitsua iruditzen zaigu bertakoak izatea, ezagutzea. Gu aurretik ere bertako langileak izan gara eta horrek ziurtasuna ematen zigun.

Beasainen oinarrituz, ludotekan ekintza ezberdinak egiten dituzue, bai ludotekan bertan, bai ludotekatik kanpo. Ludoteka ibiltaria adibidez.

Igartza auzoan ludotekarik ez dagoenez, ludoteka Igartza auzora eramaten dugu. Urtean bi larunbatetan, ludotekako espazio guztiak hartu eta Igartza auzora eramaten ditugu. Iaz hasitako ekimena aurtan ere errepikatu nahi dugu. Auzotarrek eskertu egin dute.

“Hilabeteko azkeneko astean, gurasoak gonbidatzen ditugu beraien hurrekin jolasera etor daitezen eta ludotekan egiten den lana ezagutu dezaten”.

Jostailuen mailegutza ere eskaintzen dugu. Otsailean jostailuen mailegutza jarri genuen martxan. Jostailuen katalogazioa egin genuen. Jostailu bakoitzak fitxa bat dauka. Adin tartea, zenbat lagunek jolastu dezaketen, zenbat fitxa dauzkaten, zein helburu dauzkaten, zer lantzen duen... Hilabeteko lehenengo astean, bazkideek, etxera

eramateko jostailu bat hartzeko aukera daukate. Hilabete horren amaieran bueltan ekarri behar dute. Liburutegiko mailegutza zerbitzua bezala da. Joko batzuk, merkatuan ikusten ez ditugunak dira. Kooperatiboak adibidez. Eta horri bide eman nahi diegu, gurasoek ere ezagutu ditzatela, etxean horrelako jolasak edukitzeko aukerarik ez duenari aukera eman. Arrakasta izan du. Etorkinentzako egitasmo bat ere badugu, integrazioaren inguruan.

Gurasoekin ere lanketaren bat egiten omen duzue.

Guraso txokoa daukagu, ludotekako dinamikan. Gurasoak ere pixka bat inplikatzeko nahi dugu, espazioa ezagutzea, eta partaide izatea neurri batean. Behar bat ikusi dugu, gurasoek hemen zein lan egiten den jakiteko. Guraso txokoaren barruan, gurasoak jolasera ekimena egiten dugu: hilabeteko azkeneko aste-



Nerea Manzidor eta Alazne Elortza.

an, gurasoak gonbidatzen ditugu beraien haurrekin jolasera etor daitezen eta ludotekan egiten den lana ezagutu dezaten. Aurrera begira, gurasoen nahien arabera, gai zehatzen baten inguruko hitzaldiren bat egitea nahiko genuke.

Eizu Gaztelekuaren kudeaketaz ere arduratzen zarete.

Umeak lau urtetatik ezagutzen ditugu. Eta gure prozesua 16 urtetan bukatzen da. 4-16 urte bitartean, zerbitzuen jarraipena ematen da. Orain arte Gaztelekua aparte zihuan. Garrantzitsua ikusten genuen aisialdiko eremu horretan bilakaera bat ematea, lan koordinatu bat izatea: helburu berdinak, norabide berdinak, koordinazioa egotea espazioen artean.

Gaztelekua egun gehiagotan irekitzen duzue orain.

Aurtengo berrikuntza hori da. Orain artean Gaztelekua asteburuetan bakarrik irekitzen zen. Iaz ostiraletan irekitzen hastea lortu genuen eta aurtun, ostegunetan ere bai. Ludotekan aste gutziko eskaintza egiten da, eta han ere bai ahal den neurrian

zabaltzea. Ez dadila izan asteburuko eskaintza bakarrik. Ematen zuen gazteak jolas areto batera joaten zirela. Lanketa horiek egiteko, hezitzaileekin harremana egiteko-eta, eskaintza zabaltzen joatea beharrezkoa ikusten genuen.

Zer moduz hartu dute gazteek eskaintza hori?

Ondo. Espazioa beraiena dela ulertzea nahi dugu. Konpromisoak eta ardurak har ditzatela. Ekintza bat egitea erabakitzen badugu, sukaldaritza adibidez, hezitzaileekin batera erosketak egiteko ardura har dezatela. Beraiek proposatu izan dituzte ekintzak, Kartingera joatea adibidez. Antolatu genuen eta ez zen inor etorri. Konpromisoa edo ardura hartzea asko kostatzen zaie. Hortan eragin nahi dugu.

Azaroaren bukaerarako egitasmo berri bat ere badaukazue, jostailuen truke azoka.

Azaroaren 25ean eta 26an jostailuak trukatzeko aukera eman nahi dugu. (Goierrihartxon dago informazio zehatzagoa).

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



GERTU

ENPRESA AHOIKULARRIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN

Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33

gertu@gertuasores.com



LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua 1/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Joxe Mari
Esnaola
aizkolari
zegamarra:



Era batera edo bestera, baina aizkorari lotuta bizi da Joxe Mari Esnaola zegamarra. 19 urte zituela lehenengo aizkora kolpeak eman eta 24 urterekin federatu zen. Harrezkeroztik, Bigarren mailako txapelketan parte hartzen du; zutikako enborra ebakitzen aritzen da 5 metrora; eta Euskal Herriko txapelketarako egurrak aukeratzen ari da.

Joxe Mari Esnaola zegamarrak urte asko daramatza aizkora munduan. "Mejora handirik ez dugu egin baina", dio. Aizkora txapelketetan, era-kustaldietan, egurrak prestatzen... aizkorari esker Euskal Herria eta mundua ezagutzen ari da.

35 urte ditu eta 19 urterekin hasi zen lehen aizkora golpeak ematen, herrian bertan, Zegaman. Hiru urte beranduago, apustu baten haritik hasi zen serioago aizkora. Zegaman bertan, San Martin azoka egun batean, Joxe Mari eta Esteban Arakama anaiak eta Inazio Katarain izan ziren zirikatzaileak. Esnaolak erronkari heldu eta harrezkeroztik ez da gelditu. "Apustu hartatik hasi nintzen. Segi eta segi, herri mailan maila bat hartu nuen eta 24 urterekin, federatzera salto egin nuen. Orduan kontrarioak bilatu nituen! Herri mailan nahiko poliki ibiltzen nintzen, eta jendeak animatu egiten zaitu. Garai hartan gainera, basoan ibiltzen nintzen lanean. Basoko lagunek ere animatu ninduten. Bigarren Mailan bastante poliki ibili naiz. Poliki-poliki, familia eta beste lan batzuk direlaeta, Gipuzkoa mailan bakarrik ateratzen hasi nintzen".

5 metroko enborra zutik

Duela urte batzuk, 5 metroko enborraren gainean aizkora aritzera pasatu zen. "Saralegitarrekin ibiltzen naiz. Euren anaia istripuan hil zenetik, 5 metroko lan hori

koloka antzean eduki dute. Barberena eta Peñagarikano ere ibili ziren, baina beti 4 metrora mugatuta. Lagun bat edo bi behar zituzten 5 metroan aizkora egingo zutenak. Proba egin nuen eta hala hasi nintzen. Niri ere kostatu zitzaidan. Bi oholekin




Joxe Mari Esnaola, Inazio Katarain, Joxe Mari Arakama eta Esteban Arakama

Aizkora-trontza apustu hura

1998. urteko argazkia da. Joxe Mari Esnaola, Inazio Katarain, Joxe Mari Arakama eta Esteban Arakama dira. Aizkora-trontza apustua egin zuten San Martin azokan. 10.000 duro jarri zituzten mahai gainean. 10 enbor aizkoraz eta beste 10 trontzaz ebaki behar izan zituzten. 1998ko azaroaren 13ko Goierriarran (147 zenbakia) egindako erreportajearen apustuaren helburua zein azpimarratzen zuten: "batetik herrian herri kirol giroa sortzea eta bestetik, Esnaola gaztea afizioarekin zetorrenez, zaletasunari eustea".

"Apustu hartatik hasi nintzen. Segi eta segi, herri mailan maila bat hartu nuen eta 24 urterekin, federatzera salto egin nuen. Orduan kontrarioak bilatu nituen"



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

KIKO ENEA taberna



Ostiraletan eta larunbatetan
plater konbinatuak

Bazkari eta afariak enkarguz

Gipuzkoa, 13
T. 943 08 48 11
ORDIZIA

ARANDIA GARAJE A MULTIMARKA

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



Gazteak badatoz

Gazteekin ere lanean aritzen da Joxe Mari Esnaola. “Boladatxo honetan, gainera, gazte asko datoz. Gazteak, 20 bat urtekoak, badatoz. Atutxa, Saralegitarren bi anai, Larretxearena... gazte batzuk poliki datoz. Goierrin ere bai: Zerainen Xabier Dorronsoro, Arkaitz Jauregi erdi lazkaotarra, Ugarte idiazabalarra... Baina ekonomiak zerikusia dauka. Egurra kosta egiten da. Kirol garestia da. Prestatu egin behar dira eta kirol guztietan bezala, astia behar da. Aizkorak lan asko dauka: egurrak jarri, egurrak kendu, garbitu, moztu, berriz ere egurrak jarri... Lan berezi bat dauka. Ez da pelota hartu eta frontoira joatea bezala”.

Gazteak badatoz baina “zaharrak” ere hor dabilta, oraindik, gogor. “Hori gainera! Zaharrak ezin ditugu erretiratu! Kirol bakarra da, 50 urtetik gora, 25ekoa baino fuertegoa egotea. Ez dakit zer gertatzen den”, dio zegamarrak.

“Esperientziak gehiago balio duela esan nahi al du?”, galdetu diogu. “Bai. Erresistentziak ere zerikusia dauka baina ez dakit nik: 25eko batek 50ekoak baino erresistentzia gehiago eduki behar luke, baina badago zerbait berezia. Azkenean eurek uzten dute, guk ez ditugu bidaltzen”.

**“Zaharrak ezin ditugu
erretiratu. Azkenean eurek
uzten dute,
guk ez ditugu bidaltzen”.**

ondo, baina hirugarren ohola asko mugitzen da. Eurek behar zuten eta nik erakustaldiak egin nahi nituen, eta horrelaxe hasi nintzen”.

Zutikako enborrean sartutako oholen gainean aritu behar izaten du zegamarrak aizkoran. “Ohol bereziak dira, Australiatik ekarriak. Puntan burdina daukan ohola da. Enborrean zuloa egiten da, sartuta gelditzen da. “Aizkoran ondo egitea baino zerbait gehiago behar da: oreka pixka bat, eta zutika mozteko abilitade pixka bat eskatzen du. Akats bat egiten baduzu, goitik behera zoaz”.

Australiatik jaso duten teknika da Esnaolak egiten duena. “Australian egiten da. Munduan leku askotan egiten da bi oholekin, baina hirugarren eta laugarren oholarekin jendea ez da hainbeste animatzen. Ohol hori lehenengo aldiz australiarrek ekarri omen zuten honuntza. Baina geroztik jakin dugu, ohol hori berez, Amerikako Yosemiteko

dute”. Horren adibide da, Iparraldean udan egiten dituzten erakustaldiak. “Uztailan eta abuztuan, kiroldegiak ixten dituzte eta Force Basque jartzen dute. Lasto altxatzen, harrijasotzen eta 5 metroko enborra moztzen aritzen gara. Sarrera kobratzen dute eta urte guztirako dirua hor ateratzen dute. Jende asko joaten da”.

Datorren udari begira, ezeren okerrik ez bada, Atlantikoaz beste aldera joango da berriz ere: “uztailean, ia seguru, Elkora joateko deitu zidaten, Nevadako Euskal Jaira”.

Erakustaldi asko egiten dituztela dio Esnaolak. “Baina aizkolariak ere asko gaude eta denen artean banatzeko asko gaude. Herrietan ere ikusten da diru gutxiago dagoela”, azpimarratu du zegamarrak.

Egurrak aukeratzen

Erakustaldiez gain, txapelketetan ere parte hartzen du.

**“Amerikan, Kanadan, Eskozian...
ibili naiz. Noiznahi Kataluniara
joaten naiz. Saralegitarrekin asko
ibili naiz aurtengo udan ere”**

basomutiek Australiara eramane zutela. Baina Yosemiteko suitzarren batzuk eraman ote zuten esaten da. Auskalo! Euskal Herria Australiatik ekarri zuten.

Iparraldean asko

Euskal Herrian ez dira asko lan horretan aritzen direnak. “Sei bat lagun gaude lan hori egiten dugunak, eta lan horrek bide eta ate asko zabaldu dizkit niri. Amerikan, Kanadan, Eskozian... ibili naiz. Gutxi egote horrekin, noiznahi Kataluniara joaten naiz. Saralegitarrekin asko ibili naiz aurtengo udan ere”.

Joaten diren lekuan arrakasta izaten omen dute. “Jendea asko erakartzen du; gehienbat Iparraldean. Gaur egun gainera, aizkolarien orde, 5 metrokoa eramaten

Batetik, Gipuzkoako Bigarren Mailako txapelketan; eta besetik, Euskal Herriko txapelketako egurrak aukeratzen eta prestatzen. “Txapelketako egurrak prestatzen ditugu Peñagarikanok eta biok. Egurrak aukeratu normalean Peñagarikanok aukeratzen ditu. Ni, neurriak jartzen ibiltzen naiz. Lan horrek aukera eman dit leku asko ezagutzeko. Lan asko da eta txapelketan, Gipuzkoa mailan bakarrik ateratzen naiz”.

Nafarroatik ekarten dute pago egurra. “Irati basora joaten gara. Irati barren-barrenean sartzen gara; Orbaizetatik 16 kilometroa sartzen gara. Irati basoa ikaragarria da. Mendia gustatzen zaigunontzat hura ikaragarria da”, aitortu du Joxe Mari Esnaola zegamarrak.

“Urteko egunik politena da San Martin azoka”

Egun berezia izaten da San Martin azoka zegamarrentzat. San Martin egunaren ondorengo larunbatean izaten da herriko azoka. Aurten azaroaren 12an izango da.

Joxe Mari Esnaolarentzat “urteko egunik politena da San Martin azoka. Herri giro polita egoten da. Behor batzuk biditugu. Horiek kalera eramaten ditugu eta horien kontura gosaltzen dugu. Bi-hiru urtetan eman digute etxe behorren saria eta poza ematen du. Egia esateko, behorrak, emaztearengatik dauzkagu. Bera da behorzalea. 2-3 behorrekin hasi ginen eta 6-7 ditugu”, aitortu du zegamarrak.



Joxe Mari Esnaola, Maider eta Enekorekin.

Autowag




☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Lanber
LAN BERTIKALAK S.L.
San Bartolomé, 12 ORDIZIA
Tel.: 605 712 018
Tel.: 943 162 427
Web: www.lanbertikalak.es
Mail: info@lanbertikalak.es

fatxadak, teilatuak,
terrazak, kanaloaiak,
bajanteak...





Eneko Dorronsoro
ataundar trikitilaria:
**“Zopilotes
taldearekin hasi
naiz trikitiarekin
gozatzen,
inprobisatzeko
aukera daukat”**

Umetatik, 10 urte zituela heldu zion Eneko Dorronsoro
ataundarrak lehenengo aldiz soinu txikiari. Lehengusuaren
etxean jo zituen lehenengo musika doinuak. Berehala Ataunen
trikiti eskola sortu zuten eta 13 urte zituenean, Aintzane, Haritz, Aiora
eta Goranerekin batera, Agautz trikiti talde sortu zuten. Urte batzutan
trikitia utzita egon bada ere, berriro ere motibazioa aurkitu du
trikitriarekin. Eskolak ematen ditu eta Los Zopilotes Txirriaos
taldearekin plazaz plaza dabil, gustura eta pozik.

Goierritarra aldizkaria duela 22 urte sortu zen eta urte hauetan
guztietan makina bat kontu eta argazki kaleratu ditu. Eneko
Dorronsorori elkarrizketa egin behar geniola eta, argazki artxi-
bora jo genuen. Ataungo karpetan, Agautz trikitilari taldearen
argazkia aurkitu genuen. Bertan dago Eneko Dorronsoro.
Solosaldua hasteko, argazkia erakutsi diogu.

Noizkoa ote da argazkia?

Trikitiarekin hasi eta hiru urtera jarri nion soinuari ikurrina.
13 bat urte izango nituen argazki horretan. 18 urte edukiko ditu
argazki horrek. Aintzane, Haritz, Aiora eta Gorane dira besteak.

Zure trikiti ibilbidea Agautzekin hasiko zen ezta?

Bai. Arbizuko lehengusua trikiti ikasten ari zen Gozategirekin.
Arratsalde pasa joan nintzen batean, 10 urte nituela, soinua
hartu eta jotzen hasi nintzen, 'Aitorren hizkuntza zaharra' abes-
tia atera nahian. Osabak galdetu zidan ea ikasi nahi nuen.
Baietz esan nion. Gozategirekin hitz egingo zuela esan zidan.
R-7arekin Lizarrustitik barrena joaten zen Gozategi eta gorako-

**“10 urte nituen. Soinua hartu eta
jotzen hasi nintzen,
'Aitorren hizkuntza zaharra'
abestia atera nahian.
Osabak galdetu zidan ea ikasi
nahi nuen. Baietz esan nion.”.**

an ni hartu eta beherakoan ni uzteko esango ziola. Haritzek ere
nahiko zuela, lehengusuak ere bai... 8 lagun bageunden eta
denok ez ginen R-7ak kabitzen! Izena emateko papera jarri zen
25 apuntatu ginen. Gozategiren maisua izan zenak, Martinek,
Ataunen ere eskola sortu behar zela esan zuten.

Boom hori izan zen baina hurrengo urteetan taldea txikitzen
joan zen. Aurrera jo genuenak, Haritz, Gorane eta hiruok izan
ginen. Panderoa erakustera Maixa trikitilaria etortzen zen eta
Aiora eta Aintzane ari ziren. Entsaiaitzen hasi ginen eta hortik
sortu zen Agautz.

Askok iraun al zuen taldeak?

Dezente. Herri dezentetan ibili ginen. Baina adin txarra genuen.
Askotan gogo gabe joaten ginen. Lagunak plazan utzi herri
batera joan eta estimatzen ez zutela ikustea gogorra izaten zen.



*Agautz trikitilari taldea duela 18 urte inguru. Zutik,
Aintzane Aizpurua, Haritz Cid eta Eneko Dorronsoro.
Makurtuta, Aiora eta Gorane Urdangarin.*

Toki batzutan oso ondo baina beste batzutan, merkeak ginela-
ko, eramaten gintuzten.

Agautzek balio izan zigun, trebezia hartzeko. Jo eta jo har-
tzen duzu erraztasuna, bai trikitiko teknikaren arloan, bai jen-
dearekiko harremanetan. Egoera ezberdin asko bizi izaten geni-
tuen. Herri txiki batera joan eta herritar bat bezala hartzen gini-
tuzten. Esperientzia politak bizi izan genituen. Agautz izan ez
bazen, ez dakit ni non egongo nintzatekeen.

Momentu bat iritsi zen, nahiko desmotibatuta geundela eta
utzi egin genuen. Trikitiarekin jarraitu nahi nuen baina jendau-
rrean ez nuen gustura jotzen. Etxean gustura aritzen nintzen,
baina leku batzutura gustura joaten nintzen eta beste batzutura
ez. Erabaki ona izan zen.

Agautzetik zuk bakarrik jarraitzen al duzu?

Aiorak ere jarraitzen du, Laket taldean. Besteek ez.

Hortik aurrera zer egin zenuen?

Afariren bat edo bestera joaten nintzen, baina errepertorio bat
prestatu gabe. Etxean bakarrik gozatzen nuen, nire kasa aritu-



Di da

Musika talde bat:

Ruper Ordorika.

Abesti bat:

Pearl Jam taldearen Vs diskoko 'Rearviewmirror' abestia.

Plaza bat:

Herri txiki euskaldun bateko plaza.

Zaletasun bat:

Mendia.

Oporretarako:

Euskal Herria.

Amets bat:

Orain arte daukadan ingurunearekin luzaro jarraitzea;

ta. Urte dezente egon naiz, autodidakta. Proba pare bat egin nituen berbena estiloko talde batzuekin baina ez nintzen ikusten. Motibatuko ninduen zerbait behar nuen. Taldeetan ikusten nuen, lehenengo hitza dirua izaten zela. Jendeak musikari baino gehiago, diruari begiratzeko zion. Lantokian nenbilen ni eta alde horretatik ez nuen presiorik sentitzen. Gustura egiteko zerbait bilatzen nuen.

Ez zenuen zure gustukorik bilatzen?

Nik uste dut ez nintzela saiatu ere egiten. Berbena asuntorik ez nuen nahi, plazak hutsik ikusten bainituen. Nik nahi nuena zen, trikitria jotzeko gogoia jubilatuta arte edukitzea. Etxean disfruta-

tzen da instrumentua. Hemendik 15 urtera ere horrela bada, hori da gozamena.

Motibatu zaituen zerbait aurkitu duzu azkenean, berriz ere plazetan zabiltza.

Trikiti eskolak ematen hasi nintzen Zerainean 2007an. Lantokian Eren sartu ginen eta Nafarroan ordezkapen bat egiteko aukera izan nuen. Aukera ikusten nuen bi-hiru urtean honetan aritzeko eta lantokia utzi eta eskolei heldu nien duela hiru urte. Bizitzako beste etapa batean sartu nintzen. Egunero trikitiarekin egonda, motibatu egin ninduen.

Hortik, Los Zopilotes Txirriaos taldetik deitu zidaten. Ordurako trikitiarekin gero eta gusturago nengoen egunero era batera edo bestera trikitia jotzen bainuen. Burua trikitian jarri nuen berriro eta horrek burua aktibatu egiten du.

Los Zopilotesekoei proba egiteko deitu zidaten eta zergatik ez? Pentsatu nuen. Musika berria zen niretzat, mexikarrak-eta. Baina entsaiotik gustura atera nintzen, batez ere jendeagatik. Ondo pasa nezakeela pentsatu nuen. Oso giro sanoa bilatu nuen eta hor ez nuen dudarik eduki. 2010eko urtaril-otsailean hasi nintzen Zopilotesekin.

Rantxerak jotzen aurkitu duzu beraz motibazioa.

Hori da! Berbenak ez nau tiratzen eta tiratzen ez zaituen horretan ez duzu denborarik galdu behar. Ikusten duzu, azkenean mexikarrekin nabil, eta izugarri gozatzen! Beste talde batera trikitiarekin sartzen bazara, eskatzen dena bakarrik jo behar da, zehatz-mehatz. Beti berdina jo behar duzu. Oso mugatuta zaude. Zopilotesekin berriz, kontzertuoro gauza ezberdina jotzen dut. Oinarri bat badut, baina inprobisatu egiten dut.

Ondo pasatzeko erraztasuna handia ematen dizu. Kontzerturako ere hobe da, bururatzen zaidana jotzen dut, oso irekia da. Asko ikasten da horrela. Urtean 45 kontzertu jotzen badituzu, inprobisazio puntu horrekin, asko ikasten da. Gozatzen hor hasi nintzen. Ez dago jakiterik noiz arte, desordutan baizabiltza parranda giroan. Parranda giroan gauzak oso ondo joan daitezke edo oso gaizki joan daitezke. Talde honek zenbat iraun behar duen ez dakit. Ez dago jakiterik, baina ni egunean bizi naiz.

Bi urteotan kontzertu asko eman dituzue ezta?

Dezente, bai. Aurten, momentuz, 45 kontzertu egingo genituen eta iaz ere antzeko.

Musika motarekin gustura?

Estiloarekin gustura nago. Mariatxi kontzertu bat ikusita nago, denak geldi-geldi eszenatokian. Baina giro honetan eta soltura horrekin oso gustura ari naiz.

Betiko trikitiaren estiloan ere jardun zara: 'Geure kolkotik 2011' diskoan hiru kantu grabatu dituzu.

Ekainaren bukaera grabatu nuen. Martxoan komentatu zidaten eta egia esateko, sorpresa izan zen, trikitri mundutik nahiko joko kanpo egon bainaiz. Elkarteko kidea ere ez nintzen. Deitu zidatenean, ezustekoa izan zen. Asko eskertu nuen aukera hori ematea. Esperientzia oso polita izan da. Hiru abesti konposatzeko aukera eman didate, librean. Baldintza zen soinua eta panderoa erabiltzea zen, kalean jotzeko moduko pieza izatea. Fandangoa, ariñ-ariña eta kalejira bana egin ditut.

Joxan, Goikoetxea eta Armuño izena jarri diezu kantuei. Nortzuk dira?

Pertsona bakarra da: Joxan Goikoetxea 'Armuño'. Abestiak egiteko esan zidatenean hil zen. Agautzekook asko maite izan gaituen pertsona bat izan zen; eta guk ere bera asko maite genuena. Lazkao Txikiren lagun mina zen. Trikitia jotzen hasten ginen hunkitu egiten zen. Aukera ona zen omenalditxo hori egiteko.

Berezia izan da gainera: Aiorarekin grabatu dut diskoa. Berak panderoa jo du. Eta letrak, Haritzek egin ditu.

Disko horren aitzakian, Agautzeko kideak elkartu egin zarete berriz.

Bai. Behintzat Armuñoren inguruan bildu gara.

Bolada onean zaude orduan.

Ez ezazula pentsa! Ez dakizu noiz jaso dezakezun desilusio handi bat, edo desmotibazioa. Egia esan, momentu honetan, alde gehienetatik motibazioa jasotzen dut.

Baina ez dakizu noiz arte izango den. Nik horregatik, egunean eguneko bizi dut. Ez dakit taldean zenbat jarraituko dudan. Uste dut musikarekin beti jarraituko dudala, baina ez dago esaterik. Bizitzak buelta asko ematen ditu, ez dut erronkarik jartzen.

Bueltan-bueltan, Agautzera iritsi gara berriro ere.

Bai. Oso polita da gainera! Orain dela 13 bat urte utzi genuen Agautz eta bakoitzak bere bidetik jarraitu du.

“Ordurako trikitiarekin gero eta gusturago nengoen egunero, era batera edo bestera trikitixa jotzen bainuen. Burua trikitian jarri nuen berriro eta horrek burua aktibatu egiten du”.



Pintxo hotz eta beroak
Ogitartekook

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA T 943 16 03 04



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net
nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Mutiloa

IV. Txerri azoka, azaroaren 6an

Azaroaren lehenengo igandean, azaroaren 6an, izango da Mutiloa IV. Txerri azoka. Izenak dioen bezala, txerria izango da eguneko protagonista; txerria eta txerrikiak. Jarraian duzue mutiloarren osatutako egitaraua:

10:00etan: Azokaren irekiera ofizila trikiti giroan.

Goizean:

- ✓ Txerri erretzea.
- ✓ Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak.
- ✓ Txerri erakusketa.
- ✓ Odolki eta txorizo dastaketa.
- ✓ Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- ✓ Umeak asto gaineen ibiltzeko eta pastak egiteko aukera.

12:00etan: Odolkiak egiteko erakustaldia.

Ondoren: Erretako txerriaren dastaketa-pintxoak.

14:30ean: Bazkari herrikoia.

Ormaiztegi

Mendi astea

Azaroak 7, astelehena:

19:30ean: Alberto Zerainen 'Everesten biderik laburrena' ikusentzunezkoa, Kultur Etxean.

Azaroak 8, asteartea:

19:30ean: Antxon Iturrizaren 'Trekking munduko mendietan zehar' ikusentzunezkoa, Kultur Etxean.

Azaroak 9, asteazkena:

19:30ean: M.A. Otsoa de Aldaren 'Dolomitas' ikusentzunezkoa, Kultur Etxean.

Azaroak 10, osteguna:

19:30ean: Unai Leteren eta Eneko Mujikaren 'Bolivia' ikusentzunezkoa, Kultur Etxean.

Azaroak 11, ostirala:

19:30ean: Fidel Mendiaren 'Sekulako eskia Pirineoan' ikusentzunezkoa, Kultur Etxean.

Jarraian: IX. Argazki lehiaketako sari banaketa.

Azaroak 13, igandea:

9:00etan: Ormaiztegi-Ormaiztegi mendi ibilaldia.

18:30ean: Gaztaina jatea herriko enparantzan.

Beasain

Jazpana fest jaialdia

Urriaren 28tik 31ra Beasainen, Bernedoenean, musika protagonista izango da. Beste hainbat ekintza osagarri ere izango da. Sarrera dohainik da.

Urriak 28, ostirala:

19:00etan: Argazki rallyaren hasiera.

19:00etan: 'Guitar hero' lehiaketa, Karpa txikian.

22:30ean: Kontzertuak: Atom Rhumba, Guadalupe Plata, Continuo Renacer, Lost Chords eta Olarius&Brothers Dj-ak.

Urriak 29, larunbata:

15:00etan: 3 x 3 saskibaloia txapelketa, Bernedoenean.

19:00etan: Arratsaldeko kontzertuak: The Nekrobabies eta Cuarto de Hora.

22:30ean: Kontzertuak: El Culpio Asesino, Los Tiki Phantoms, Willis Drummond, La Celula Durmiente eta Mether&Zacker Dj-ak.

Urriak 31, astelehena:

19:00etan: Beasaingo Film laburren emanaldia.

Ondoren: Jazpanaokea.

Tailerrak erretiratuen etxean

La Caixak, Erretiratuen Etxeak eta Udalak, lau tailer antolatu dituzte erretiratuen etxean. Tailerrak doan dira eta parte hartzeko izena erretiratuen etxean bertan eman beharko da. Jarraian duzue egitaraua:

Adimena aktibatu:

17:30ean, urriaren 18an, 21ean eta 28an.

Irakurle handiak:

15:30ean, azaroaren 4an, 8an, 11n, 18an, 22an eta 25ean.

Adimena aktibatu:

17:30ean, azaroaren 4an, 8an, 11n, 18an, 22an eta 25ean.

Gizarte trebetasunak eta boluntarioritza:

17:30ean, azaroaren 22an eta 25ean, eta abenduaren 2an, 9an, 13an, 16an eta 20an.

Astigarretan San Martin jaia

Azaroak 13, igandea:

11:30ean: Meza Nagusia. Beasaingo San Martin koruak abestuko du.

12:30ean: Aizkolariak: Azurmendi-Olasagasti.

13:30ean: Herri bazkaria, Astauzel elkartean.

Egunean zehar: Laja eta Landakanda trikitilariak eta Mañukorta, Zeberio eta Goikoetxea bertsolariak izango dira.



kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Urdaneta, 7

Beasain

Udazken kulturala

Azaroak 3, osteguna:

17:30etan: Ipuin kontaketa: 'Remember, remember, stories in november'. Udal Bibliotekan.

Azaroak 4, ostirala:

19:00etan: Aitor Mertzan Zabaletaren pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

22:00etan: 'Igelaren banda' folk jazz musika kontzertua, Igartzako jauregian.

Azaroak 5, larunbata:

10:00etan: Bertako jeneroen azoka berezia eta ardo azoka, Gernika pasealekuan eta Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki dastatzea eta lehiaketaren XXVII. edizioa, Gernika pasealekuko frontoian eta Loinazko San Martin plazan.

15:00etan: Herri bazkaria, Loinazko San Martin plazaren azpian.

18:30etan: Trapu Zaharra taldearen 'Jira bira' kale antzerkia, Kale Nagusian.

Azaroak 6, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Finalistaren eguna, Murumendira eta Garina.

10:00etan: Extremadurako azoka.

12:00etan: 'Sones de Extremadura' taldearen emanaldia, Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

13:00etan: Donostiako 'Virgen de Guadalupe' taldearen dan-

tza emanaldia, Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

17:00etan: Haurrentzako zinea Usurbe Antzokian: 'Arthur eta munduen gerra'.

Azaroak 8, asteartea:

17:30etan: Ipuin kontaketa: 'Filomena muxugorri errege'. Udal Bibliotekan.

09:00etan: XX. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa, Loinazko San Marin plaza azpian.

Azaroak 9, asteazkena:

17:30etan: Ipuin kontaketa: 'Nire etxea, zure etxea da'. Udal Bibliotekan.

Azaroak 10, osteguna:

21:00etan: Zine kluba: 'Tamara drewe', Usurbe Antzokian.

Azaroak 11, ostirala:

18:00etan: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

20:00etan: Txalo produkzioak-en 'Ocasiones especiales', Usurbe Antzokian.

22:30etan: Antzerkia: Txalo produkzioak-en 'Ocasiones especiales' antzeslana, Usurbe Antzokian.

Azaroak 12, larunbata:

18:00etan: Asmuberen kultura ekitaldia (abesbatza, aretoko dantzak...), Usurbe Antzokian.

Azaroak 13, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Urnieta-Adarra-Urnieta.

17:00etan: Haurrentzako zinea: 'Kung Fu Panda 2', Usurbe antzokian.



MUTILOAKO

IV. TXERRI AZOKA

2011ko azaroak 6

ANTOLATZAILEAK:

MYTILOAKO VDALA



10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala trikiti giroan.

Goizean zehar:

- Txerri erretzea.
- Txerrikiak salgai: jatorri ezberdinetako ekoizleak, kultura bakoitzeko ohituretan oinarrituak
- Txerri erakusketa.
- Odolki eta txorizo dastaketa.
- Urdaiazpiko mozte erakusketa eta dastaketa.
- Umeak asto gainean ibiltzeko aukera izango dute.

12:00etan: Odolkiak egiteko erakustaldia
Ondoren: Erretako txerriaren dastaketa - pintxoak.

14:30etan: Bazkari herrikoia.

Goierri

Goierriko Kultur zirkuitua

Ordiziako Hitzaro Euskara Elkartek, Itsasondoko Arbelaitz Elkartek, Segurako Hitz edo Irri Euskaraz Ekarri Euskara Taldeak, Lazkaoko Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartek eta Beasaingo Arrano Elkartek, elkarlanean, Goierriko Kultur Zirkuitua antolatu dute azaroan eta abenduan. Hona hemen lehen hiru saioak:

Azaroak 4, ostirala:

22:00etan: Igelaren Banda, jazz folk kontzertua, Beasaingo Igartzta jauregian.

Azaroak 8, asteartea:

18:30ean: Irati Andaren 'Hamarkada bat harkaitz artean' ikusentzunezkoa, Barrena Kultur etxean.

Azaroak 15, asteartea:

18:45ean: Joxe Mari Carrere 'Maitasunaren arbola. Ipuin pre-erotikoak', Lazkaoko Gerriko Txokoa.

Segura

Musika trebakuntza ikastaroa

Tobera Musika Eskolaren 25. urteurrenaren harira, 18 urte-tik gorakoentzat trebakuntza ikastaroa antolatu du, "musika elkarrekin eta batera lantzeko saio praktikoa izango dena. Gurasoentzat adibidez emankorra izango da euren seme-alabek Toberan egiten dutenaren lanaren dimentsioak jabetzen laguntzeko". Azaroaren 12an izango da ikastaroa, dohainik, Segurako kultur etxe berrian, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Ikastaroan parte hartzeko ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izatea.

Ordizia

Sustraiez Blai jaialdia

Azaroak 12, larunbata:

18:00etan: Garagartza plazan, Valentziako La Trocamba Matanusca (musika balkanikoa) eta Donostiako Dilshad (ekialdeko dantzak).

21:00etan: Plaza Nagusian, Zestoako Adabegi (flamenkoa eta trikitixa), Nigerreko Bombio tuarega (basamortuko blue-sa) eta Kataluniako Samueliko y Los Guailers (rumba bihurria) musika taldeak eta Talo DJ.

Haurrei ipuinak kontatzeko ikastaroa

Azaroaren 7an, 10ean eta 15ean, Haurrei ipuinak kontatzeko ikastaroa izango da gurasoentzat eta hezitzaileentzat, Pello Añorgarekin. Azaroaren 7an 17:00etatik 19:00etara izango da eta beste bi egunetan, 17:00etatik 20:00etara. Plazak mugatuak dira. Udal Liburutegian eman behar da izena. Dohainik da ikastaroa.

Barroko aire jaialdia, musika barrokoaren egunak

Azaroak 4, ostirala:

20:00etan: Spanish Brass Luur Metals. Parrokian.

Azaroak 12, asteartea:

20:00etan: Arimaz Ganbara Orkestra eta Santa Zezilia abesbatza. Elizan.


PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

EGUARDIZ IREKITA
9:30etik 19:00etara
ostiralean:
9:30etik 15:00etara

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa

HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)

TAILERRAK:
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...

MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120 - 685 722 403
ikaskide@ikaskide.net



Goierri Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 40. zenbakia 2011ko azaroa



Jostailu trukea



Jostailu trukerako azoka

Beasainen antolatu du Aisihezi elkarteak

Jostailu asko izaten dira etxean, erabiltzen ez direnak, eta askotan berri-berriak edo ia berriak. Zer egin ere ez da jakiten askotan. Beasaingo Aisihezi elkarteak jostailuak trukatu diren azoka antolatu. Azaroaren 25 arratsaldean (17:00-19:00) (eta 26 goizean (10:30-13:00) izango da azoka, Beasaingo Loinazko San Martin plazapean, Berritsu ludotekaren aurrealdean.

Helburu ugari ditu azoka honek: etxean erabiltzen ez ditugun jostailuak aldatzeko aukera izatea; diru gasturik gabe jostailu

“berriak” etxera eraman ahal izatea; gehiegizko kontsumismoarekiko kontzientzia hartzea; krisiari aurre eginez, haurrek beste jostailu batzuk erabili ahal izatea; berrerabilpena bultzatzea; herrian herritarrek eta herriarentzat eginiko ekimen batean parte hartzeko aukera izatea; eta jostailurik ez duenari edukitzeko aukera ematea.

Trukea

4 eta 16 urte bitarteko jostailuak bilduko dira. Egoera onean eta fitxa guztiak dituzten jostailuak

hartuko dira. Aisihezi Elkarteko Nerea Manzidorrek eta Alazne Elortzak Goierthartxori esan diotenez, truke sistema honokoa izango da: norberak nahi ez duen jostailua eraman eta beste jostailu bat hartzeko bale bat emango zaie. Jostailu “berria”, nahi izanez gero, momentuan edo hurrengo egunean hartu ahal izango da. Adinka banatuko dituzte jostailuak: 4-8 urte, 9-12 urte eta 13-16 urte. Adinaren barruan, beste hiru sailkapen egingo dira: jostailuak (mahai jolasak, kartak, zirkuituak, kotxe



Jostailu mailegutza

Urtean zehar ere, Beasaingo Berritsu eta Txelotxe ludoteketan egiten dute jostailuekin lotutako beste ekimen bat: jostailu mailegutza. Hilabete bakoitzeko lehen astean, jostailua aukeratu eta etxera eramateko aukera izaten da, haurrek eta gurasoek elkarrekin jolas dezaten eta jolas ezberdinak ezagutu ditzaten. “Jostailuak haur “guztiek” dituzten arren, ludotekan balore ezberdinak eta hain ezagunak ez diren jolasak ditugunez, hauek haur eta gurasoen eskura jarri nahi ditugu”.

Maileguan eraman daitezkeen jostailu guztien katalogo bat sortu dute, eta bertan jolasaren azalpenak ematen dira. Zein adinetako haurrentzako den, zenbat lagunek jolasteko jolasa den, zein helburu dituen...

kapotak...), kiroletako materiala (patinak, txirrinduak...) eta jostailu txikiak (panpintxoak, kotxe txikiak).

Goierriko haur guztiek har dezakete parte azoka honetan.

Balioa eman

Gabon inguruan egingo da azoka, jostailuen kontsumo handiena garai horretan gertatzen baita. “Gabonetan ematen den ikaragarritzko kontsumoa dela eta jostailuak eta jolasak duen garrantzia deusezturik gelditzen da, hainbeste propaganda eta iragarkirekin. Data hauek egoiak iruditu zaizkigu ekimen hau burutzeko”.

Illo horretan, ikastetxeekin elkarlanean, trukearen filosofia landu nahi dute. “Jostailuei


balioa eman nahi zaie. Nik ez dut erabiltzen eta beste batek erabiliko du. Berrerabilpena bultzatuko dugu. Trukearen kontzeptua landu nahi dugu. Dirurik gastatu gabe beste jostailu bat hartzea. Kontsumo masifikazioaren aurkako kontzientzia landu”, diote Aisihezi elkarteak.



“Egunean bertan, jostailuak jaso eta sailkapen bat egingo dugu. Ekarleari bale bat emango zaio eta beste jostailu bategatik aldatu ahal izango du”




Zenbatu ttanttoak



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Mamu-hezlea

Autorea: Ana Maria machado
Ilustratzailea: Maria Luisa Torcida
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni
Argitaletxea: Ikasmina (SM)
Orrialde kopurua: 64

Lliburu honen protagonista den Sergio, gau batez, arbolaren itzalak izutu zuen, mamu bat zelakoan. Hura uxatzeko, ordea, ideia bat izan zuen. Mamuari zera esan zion: "Horrela begiratzen jarraitzen baduzu zu baino mamu beldurgarriago bati deituko diot zu ikaratzeko". Eta baita deitu ere. Eta bigarren mamua izutzeko hirugarren bat, eta gero laugarrena eta gero... barrez lehertu zen arte azken mamuaren itxurarekin!

Loreren ibilaldia

Autorea: Pat Hutchins
Ilustratzailea: Pat Hutchins
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka
Orrialde kopurua: 36

Buru tenteak dira oiloak, txolin xamarrek, eta Lore oiloetan oiloena da. Goizean, oilategitik atera denean, atzera begiratu gabe abiatu da paseatzera. Azeriak baina, arrastoa jarraituko dio, behin eta berriro saiaturiko da Lore jaten, baina ahalegin guztiak ustelak izango dira: estropezu egingo du, sardearekin muturrekoa hartu... denetik gertatuko zaio. Eta Lore, bitartean, burua tente, beti aurrera, ezertaz ohartu gabe. Album ilustratu hau klasiko bat da 1968an argitaratu zenetik.

Itzal egokia

Ondoko landareak
ondoan 7 itzal baditu
ere, bakarra da berari
dagokiona.



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden
laukitxoak bete behar dituzu, 1etik
9ra bitarteko zenbakiak idatziz,
eta kontuan izanik zenbaki bakar
bat ere ez dela bi aldiz azaltzen
errenkada eta zutabe berean, ezta
dagokion 3x3-ko laukian ere.

		5	2	4		7	8	
8	4	6			9	3		
	2					4	9	
		7		9	3	6		
6	3	4		2		9	1	
9	1	2	8		4	5	7	3
			6			1	5	4
1	6		4		7			9
	5		9			8	6	7

goierri^H artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





Zaldibiako luistarrak 1934. urtean


Zuriñe
Edergintza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURREGIKO
TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK,
DEPILAZIOAK, BRONTZETATZEAK...

Urrian promozioa!

Tel.: 647 314 771
Garmendia Otaola, 5 - behe 3
BEASAIN

PREZIO BERRIAK
SEGURAN
2,3 LOGELA eta DUPLEXAK



Tel : 943 88 37 39
www.lamylazkao.com





ÑANARRI
LAN BERTIKALAK

tximiniak / bajanteak / teilatuak / fatxadak
/ bizi bideak / segurtasun neurriak

T : 680641401 - 676952968 - www.nanarri.com
aitorg@nanarri.com - aitore@nanarri.com




MUJIKA 19
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Barandiaran

= berrikuntzak | = materialak



943 88 79 72 senpere 7 beasain | 943 18 78 52 eziolatza B-1 idiazabal

www.barandiaranzeramikak.com

DO'S formación: kalitatea eta banakako arreta

DO'S FORMACIÓN-en, 30 urteko eskarmentua dugu puntako ikastaroak ematen: hizkuntzak (ingelera, alemana, txinera...), informatika, enpresen kudeaketa, giza baliabideak eta kalitatea.

Enpresa bakoitzaren beharretara moldatzen gara taldeka edo banaka irakatsiz. Horrez gain, klaseak aurrez-aurre, on line edo era mistoan ematen ditugu. Metodologia adinaren arabera aukeratzen dugu, ikaslearen denbora eta ahalegina gehien aprobetxatuz.

Azterketa ofizial desberdinak prestatzen adituak gara eta gure ibilbidean zehar ikasleek azterketen gainditze maila bikaina lortu izan dute. Hau dena irakasle talde bikain bati esker.

Diruz lagundutako ikastaroak ere ematen ditugu, bai LANBIDEn bidez (langabetuentzat), baita HOBETUZen bidez ere (langileentzat).

Dena den, guregana hurbiltzera gomendatzen zaituztegu informazio zehatzagoa jaso ahal izateko.



DO'S
FORMACIÓN
www.dosformacion.com
Nafarroa etorbidea, 1 - BEASAIN
943 88 03 46 - 656 70 86 31



Toyota Auris Híbrido HSD *berria*

zatoz ezagutzera!



EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926
BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es